



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

## AKTA GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA

**Eguna :** 2011ko urriaren 17a.

**Ordua :** 19:00retan.

**Tokia :** Udaletxeko 2. solairuan.

**Bertaratuak :** - Dementzia dutenen familiarrek: Joseba Zubikarai .  
Pakita Osa.

- Gorabide : Jose Ibarloza.  
Begoña Celaya.  
Inmaculada Laca.

- Minbiziaren aurkako elkarteak : Miren Odriozola eta ...

- Antiguako Ama Elkarteak : Lehendakaria eta idazkaria.

- EAJ-PNV : M<sup>a</sup> Dolores Etxano.

- Udalaren aldetik : Argia Ituarte.  
Haize Badiola.

-Teknikaria: Maribi Bidasolo

**Gai zerrenda :** - Aurkezpena.

- Bakoitzak bere egoera orokorra, gainerako taldekideei azaltzea.

**Esandakoak eta aztergaiak :**

Alkateak batzarra hasten du Rakel Elu dela arduraduna esaten, baina momentu honetan ezinezkoa izan duela etortzea. Baita komentatu du oraindik aurrera batzar hauek hilean behin egin ahal izango direla.

Partaideen aurkezpena egiten da eta kontaktatzeko telefono eta e-mailak eguneratu egiten dira.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

Batzar hauek irekiak edo zabal dira edonork parte ahal izateko. Hauek erabakigarriak dira herriko proiektuak aurrera eraman ahal izateko, beraz denon adostasunarekin badira hobe. Hau dela eta, norbait gehiagok parte hartu nahi badu, gonbidapena luzatzen diogu eta batzorde honetan egon beharko litzatekeela deritzogun talde edo instituzioetako partaideei ere hurrengo bilerarako deia egingo diegu.

Partaideek komentatzen dute AVIFES edo gaixo mentalen familiarren ordezkaria komeni dela egotea batzar hauetan.

**Haize Badiolak** komentatzen du posible dela datorren urterako sensibilizazio kanpaina antolatzea, eta honen iraumena 7 edo 15 eguneko izango litzatekeela.

**Dementia duten familiarren ordezkoek** azaltzen digute eurak hamabostetik behin batzen direla kultur etxean, eta urte batzuetatik hona, laguntza psikologikoa izan dutela. Baita azpimarratzen dute penagarria dela zaintzaile gehiagok parte ez hartzea, oso lagungarria izaten baita egunerokoari aurre egin ahal izateko.

Bestalde **Gorabide elkarteko ordezkariak** euren ibilbidea azaldu digute, hau da, zelan hasieratik pauso eta gestio ugari egin behar izan zituztela gaur eguneko egoerarako heltzeko. Baita Plazakolako lantegia lortu egin zutela, eta hori lortzeko zenbaiten laguntza baliotsua izan zutela, baina denon artean laguntzarik aipagarriena Otxagabia osagilearena izan zela. Baita aipatu zuten iaz garraioarekin arazoak izan zituztela, baina gaur egun arazo horiek konponduta daudela.

Hori guztia azaldu ondoren Gorabide elkarteak euren eskaerak jakinarazi dituzte:

1. Ibiltzeko edo mugitzeko arazoak dituzten herritarrentzak, Calatrava zubiaren pasugunea konpontzea, gaur egun koxka dagoelako.
2. Hondartzan dagoen egurrezko bidea luzatzea, eta oinez uretara heltzeko arazoak dituztenentzat zerbait jartzea arazo horiek gainditzeko.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

3. Azkenik, jakin nahi izan dute “Kuartel”eko eraikinean zein motatako zerbitzua jartzeko asmoa dagoen.

Argia izan da galdera honi erantzuna emateko arduraduna, eta ondoko azalpena eman du:

2011ko urriaren 6an, Pilar Ardanza eta Gizarte Saileko diputatuarekin Bizkaiko Foru Aldundian batzarra izan zutela eta bertan azaldu zietela eraikin horretan zer egiteko edo ipintzeko asmoa dagoen. Hasiera batean hiru zerbitzu mota jartzeko asmoa dago :

- Eguneko zentroa : Hemen 25 plaza egongo dira eta martxan jartzeko gutxienez 5 pertsona egon behar dira. Garraio zerbitzua ere egongo da jendea etxetik zentrorera eramateko.
- 45 urtetik gorako egoitza : Hemen 25 oheko egoitza ere egongo da, baina kasu honetan 45 urtetik gorakoentzat.
- Udal Zerbitzu Soziala : Gizarte Zerbitzuko Saila dagoen lekutik eraikin honetara pasatuko da.

Argiak eguneko zentroari buruz azalpenak eman ondoren, Gorabideko elkartek jakin nahi izan dute Egoitza horretan urgentzizko kasuentzako oherik egotea posible izango den.

Bestalde, **Minbiziaren Aurkako Elkarteak** beraiek urtean zehar burutzen dituzten ekintzen berri eman dute, hau da, kanpaina desberdinak egiten dituztela, hitzaldiak, lotería .... Horrez gain, Bilboko elkarteko bulegoetan, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ei dira, esate baterako laguntza psikologikoa. Baita komentatu dute Ondarroan bederatzi pertsona batzen direla, eta batzarrak egiteko edota batzeko lokalik ez dutela.

Horrez aparte, **M<sup>a</sup> Dolores Etxano** ( EAJ-PNV alderdikoa ) gaixo mentalek eta euren familikoek dituzten arazo handien berri aditzera eman du.

Baita aipatzen du komenigarria izango litzatekeela euren ordezkariak batzarretan parte hartzea.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

Batzarra bukatutzat ematen denean, batzorde burua heltzen da eta hurrengo batzarrerako eguna eta ordua ipintzen da, hau da, 2011ko azaroaren 28an arratsaldeko 6etan.

**Hurrengo batzar eguna : 2011ko azaroaren 28a**

**Hurrengo batzarraren ordua : arratsaldeko 6etan.**

Azkenik, ezer gehiago komentatzeko edo proposamen gehiagorik egiteko daukaten galdetu da baina besterik agertu ezean, gaurko batzarra amaitutzat ematen da.

Bukaera ardua: 8.50etan.

Ondarroan, 2011 azaroaren 9an.

Idazkaria : Marivi Bidasolo Bollar